

# LUGINA TA KURLOIA

Areitz-kerizpean baserri zuri.

Bertoko etxejaun Jon gazte zalu,  
Iñioiz gogaitzake solo-lanari  
Lotua tringu.

Gari-arloa dau urre-kulunkaz  
Etxe barreneko solo guriak.  
Baiña, au zoritxar!, oartu bage  
Sortzen etsaiak.

Izan be aspaldi, an inguruau,  
Gose-miñik dabil kurloi taldea;  
Laster bear dautse osoz amaitu  
Arlo betea.

Eta arei arpegi emon-irrikaz  
—Liska ta segada arrapakari—  
Lokarriak ditu ipiñi eurrez  
Gari-zaindari.

Login martzalak bedar ebaten  
Diardu, goizetik, antxe urre samar;  
Ta kurloe bat orra liskan naasten,  
Arek bai liskar!

Lugiaak, aratuz, dirautso samur;  
«Tira! tira, lagun!; ire zoria!  
Makiña bat kalte daustak ein surten;  
Gaurtik, maitia,  
Ez dok, arraietan! janari izango  
Nire garia.»

Kurloe gaixoak audia muzin;  
— «Jaun ori, etzaitez ain biotz latza;  
Aragi bagea dozu oraindik  
Nire gorputza.  
Itxon urte bat, ta ordun nokezu  
Jaki opatza.»

Erostak iota be, lugia gazteak  
Etxera eroan eban txoria,  
Eta arrautzopillez ondo xeetuta,  
Ak janaldia!

Sarri oi dogu esan,  
Ta ba-dau bere guna:  
«Txori bat eskun obe,  
Egazka baiño euna.»